

Mugak Urratuz

Aitzpea Leizaola

Berrria, 2004-10-06: 4.

Urrun nintzela ezagutu nuen Martin Ugalde idazlea. Idazleak ezagutzen diren moduan, idazlanen bidez. Bizitzak markatzen dituen ironiaren itzuliak tarteko, Ameriketatik irakurri nuen Martin Ugalderen uztaren zati, Renoko deserri akademikoan bertako liburutegian mailegatutako liburuen bidez. Itzulera baten istorioa izan zen gehien markatu ninduen, akaso une horretan ere itzulera kontuak niretzat errealitate zirelako eta kontatzen zuena iraganekoa izanik ere gertu-gertukoa zitzaidalako.

Baina idazteaz gain, beste hamaika esparrutan egin zuen lan Martin Ugaldek, ez naiz hemen hasiko zerrendatzen, nirea baino ikuspegi osatuago eta jantziagoek eman diguten horren berri egun hauetan. Itzulera baten istorioa izan da Martin Ugalderen bizitza, hala irakurri dugu atzoko egunkarian. Erbestetik, deserritik itzulera. Hitzez gain, ekintzek markatutako gizona izan da Martin Ugalde. Berak utzitako uztak ematen digu horren berri. Gertutik ezagutu zutenek, berarekin lan egiteko aukera izan dutenek, proiektu eta egitasmoetan bidaide izan dutenek, guztiek izan dute gogoan bere ekarpenen aberastasuna. Gizona joan zaigu eta obra gelditzen da, hala esan ohi da maisuak joaten zaizkigunean. Azken garaiotako une latzak ere itzulera oraindik ere amaigabea dela baieztatzen dute tamalez. Deserritik itzuli eta susmopean hil, zoritxarrez, egungo egoerak itzuli-mitzuli askoren bueltan oraindik ere antzeratsu jarraitzen duen seinale.

Ororen gaintik, baina, Martin Ugalde zubigilea azpimarratuko nuke: Euskal Herriaren eta deserriaren artekoa, diasporaren garrantziaz aspalditik ohartutakoa, Ameriketara zelarik lehenik; Euskal Herrira etorritakoan gero. Belaunaldien arteko zubi izandakoa, gazteagoekin lanean jarduteko bere esperientzia eta jakintza partekatze adorea eta kemena izan zuena, proiektu berrien aldeko apustua eginez –*Euskaldunon Egunkaria* dugu guztiok horren adibiderik garbiena– eta baita horiek aurrera ateratzeko ikuspegi eta kredo politikoen arteko zubi lana egin zuena.

Historia ziklotan ageri zaigu, hala diote historialariek eta hala sinistarazten digute gertakarien analistek. Itzuliz betetako historia ziklikoa, batzuek diotenez. Hasi eta bukatzen, eta berriro ere hastapenera garamatzaten itzuliak. Euskal Herriaren bilakaerak halakoetan antzara joko tragikoaren itxura hartzen ez ote duen nago. Zikloen errepikapen etsigarria saihesteko, aitzinatzeko urratsak egiteko, osotasuneko ikuspegia behar da. Bai eta mugak urratzeko kemena ere. Martin Ugalde maisu izan zen horretan. Itzulitan itzulipurdika ibili nahi ez badugu, zubiak beharrezkoak, ezinbestekoak dira mugak gainditzeko. Zubi lanetan jarduteko tenplea da egun falta dena.